

AUTOEBALUAZIOA

II. MODULUA: DOSI ANITZEKO ZINETIKA

1. Dosi anitzeko erregimen batean, oreka egonkorra:
 - a) Bakarrik lortzen da dosi tartek eta eliminazio erdibizitzak balio berdina badute
 - b) Bakarrik lortzen da tarte terapeutikoa estua bada
 - c) Farmakoaren sarrera abiadura eliminazio abiadurarekin berdintzen denean lortzen da**
 - d) Hurrengo dosia administratzerakoan, aurreko dosiko farmakorik geratzen e denean lortzen da

2. Metaketa faktorea:
 - a) Bakarrik eliminazio konstantearen menpe dago
 - b) Oreka egonkorreko kontzentrazioen eta lehenengo dosiarekin lortutako kontzentrazioen arteko erlazioa da**
 - c) Dosi tartearikiko independentea da
 - d) Dosiaren eta dosi tartearen menpe dago

3. Zeren menpe dago oreka egonkorra lortzeko behar den denbora?
 - a) Eliminazio konstantea**
 - b) Dosia
 - c) Eliminazio konstantea eta dosi tartea
 - d) Dosi tartea

4. Eguneko dosi berdina duten dosi erregimen ezberdinak:
 - a) Kontzentrazio plasmaticoen gorabehera nagusia dosi tartea txikiagoa denean ematen da
 - b) Oreka egonkorrean batez besteko kontzentrazio ezberdinak lortzen dituzte
 - c) Oreka egonkorrean batez besteko kontzentrazio berdinak lortzen dituzte**

5. Dosi anitzeko erregimen batean, Ke-ren balioa handitzerakoan:
- a) **Oreka egonkorra lortzeko behar den denbora gutxitzen da eta kontzentrazio plasmaticoak baxuagoak dira**
 - b) Oreka egonkorra lortzeko behar den denbora gutxitzen da eta kontzentrazio plasmaticoak handiagoak dira
 - c) Oreka egonkorra lortzeko behar den denbora handitzen da eta kontzentrazio plasmaticoak baxuagoak dira
 - d) Oreka egonkorra lortzeko behar den denbora aldatzen da baina kontzentrazio plasmaticoak oreka egonkorrean ez dira aldatzen
6. Dosi anitzeko erregimen batean, Ka-ren balioa txikitzerakoan:
- a) **Batez besteko kontzentrazioa ez da aldatzen eta kontzentrazio plasmaticoen gorabeherak txikitzen dira**
 - b) Batez besteko kontzentrazioa ez da aldatzen eta kontzentrazio plasmaticoen gorabeherak handitzen dira
 - c) Batez besteko kontzentrazioa txikitzen da
 - d) Batez besteko kontzentrazioa ez da aldatzen, ezta kontzentrazio plasmaticoen gorabeherak ere